



# VI. BERRIA TXAPELKETAREN BILA

Aurrera-Saiaz pilota eskolak bigarren bezain jokatu du finala; Hernanin izango da, 15:30ean, Irurtzunen aurka 3

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2009-03-27

VII. URTEA 1.664. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo aurkeztu zuten Martxaundi V proiektua Jon Ander Ubedak eta Juantxo Zeberioek. E. EZEIZA

## Martxaundi aurkeztu dute, bertako musikariak ezagutzera emateko

**TOLOSA** Disko batean eskualdeko talde hasiberrien kantuak bilduko ditu Galtzaundi Euskara Taldeak aurrera eraman duen ekimenak 3



Carlos Ruiz Gonzalez, Maria Jesus Aranburu eta Iñaki Murua. I. GARCIA

## Xenpelar zentroaren digitalizazio programaren garapena, hitzartuta

**VILLABONA** Aldundiak eta Kutxak 300.000 euro eman dizkio Euskal Herriko Bertsozale elkarteari 6

**Alegiako** gizonezko bat hil da Errezilen, autoa maldan behera erorita

**ALEGIA** GI-3740 errepidean jazo zen ezbeharra, Urraki mendatean 5

**Araxesko IX.** Itzulia antolatu du Amarotz Auzo Elkartek

**TOLOSA** Apirilaren 5ean izango da, doan; 9 ordu inguruko ibilbidea da 4



HITZAK harpidunentzat  
4 sarrerak pare ditu

### Bertsojazza

Martxoak 28 • Larunbata  
22:00etan • Tolosako Leidorren



**Bertsolariak:**  
Andoni Egaña, Maialen Lujanbio,  
Jon Maia, Amets Arzallus

**Musikariak:**  
Hasier Oleaga,  
Bixente Martinez, Julen Izarra,  
Asier Ituarte eta Jon Piris

**Gai-jartzailea:**  
Unai Elizasu



sarrerak

### saridunak

Ion Diaz (Elduain)  
Aloña Usandizaga (Irura)  
Joxe Ramon Zubeldia (Baliarrain)  
M<sup>a</sup> Dolores Saizar (Ibarra)

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.

TXOKOA hitza

**Z Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Languarreren inguruan Axuni erantzuna**

Axun

Tolki polita da Languarre eta aukera politik eskeintzen ditu inguruak. Ni ere oso gustora eta maiz joaten naiz bertara eta ikusitakoak ikusita gustoen jai egunak ez direnatan.

Pasa den ostegunean, eguraldi ederra eta jende ugari zegoen Languarren. Ostiralean pake ederra eta zabor pilo bat gune batean...

Zabor ontziak eskatzen dituzu; Ez al zaizu normalagoa iruditzen pasatzen zeran tokitik arrastorik utzi gabe pasatzea?. Triste da baino, zuk bezela pentsatzen duenarekin zaborrarik ez da faltako inon; eta ez Languarren bakarrik...

Baserrri ondoan dagoen mahaiaren egun horretan izandakoak, zerri galantak!!! Oraindik, pasa den ostegunean utzi zituzten zaborrak han daude. Atzoarte zabaldua; gaur astelehena, norbaitek bildu ditu bainan han segitzen dute utzi dituenak jaso nahi baditu. Zabarkeri nabarmena ikusi zitekeen begiratu batean; Han zeuden bandeja, baso eta abar. Utzi zituenak behar bada ez zituen etxetik hartuko ere eta nonbait faltako dira.....

Azken finean edukazio kontuak besterik ez dira hauek eta sikiera, zer pentsa ematen dionari, bejondaiola. Dagokionak har dezala berea.

Nire aldetik, Languarre eta antzeko tokiak babestearren autoentzako bideak itxizea proposatuko nuke. Ajolagabe gutxiago joango litezke litronak, soinu ateratzeko gailu eta azken finean zaborrarenkin. Natura maite duenak badu beste sena bat eta...

**Jexux Martinez.****Roberto Jauregiren oroimenean, mila esker**

Roberto Jauregiren sendiak herriko agintari, kirol talde, elkarte eta Robertori bere maitasuna eskaini dioten guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Gure eskerrik beroenak Txixi Orbegozorentzat, Robertori eskainitako margoa omenaldirik hobereana izan da. Ziur gaude Roberto bere lagun guztietaz pozik egongo litzatekeela. Mila esker guztiei.

**Itziar Jauregi.****Mila esker Villabonako komertzioei**

Hutsunea betez emakumeen elkartek martxoaren 8aren harira antolatutako ekitaldiei buruzko balorazioa egin du. Honen aurrean hainbat puntu goraiatu nahi ditugu:

- Lehenin eta behin, Villabonako komertzio askok eginiko lana eta emandako laguntza nabarmendu nahi dugu.

- Bigarrenik, laguntza hori publikoki eta era irekian eskertu nahi dugu.

- Eta azkenik, gure elkartea kontuan hartu dutela komertziozko langileek eta hein batean ere lagundu egin gaituztela. Honek lanean jarraitzea animatzen gaitu.

**Hutsuneak Betez elkartea.****Belaten aparkatzea debekatzeari buruz**

Beste behin ere Tolosan bueltaka gabiltz trafikoarekin eta aparkatzearekin. Oraingo honetan Belaten, Anoetako bidean, aparkatzen genuenok hartu dugu sorpresa. Orain debekatu egin dute zati horretan aparkatzea, baina ez dakigu

zergatik. Batzuk diote kolektorearen lanagatik dala, beste batzuk bigorria egiten hasi behar dutela hor... Sekulako arazoa eragin digu erabaki horrek. Orain, noski, esango digute aparkatzeko parking berri horretan. Baina berriek ordaintzen al dute egunean 10 euro? (5 goizez eta 5 arratsalde) merkataritakek egin beharko lukeen bezala. Argitzeko zergatik ezin dugun orain hor aparkatu. Izugarria iruditzen zait neurri hau.

**Edurne.****B Blogteka****Korrika badator!**

Apirilaren 2an pasako da Korrika 16 Tolosaldeko, baina ekitaldien aurkezpen sozialagaur astearrean, arratsaldeko 19:30ean (Hitzako agendan 17:30ean jartzen du, baina 19:30ean izango da) egingo da Lizardi Elkartean.

Honetaz gain, martxoaren 25ean, arratsaldeko 19:30an, Bidai Intimoa dokumentala eskainiko da Kultur Etxean.

Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herria!

**Laskorain ikastola**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/laskorain>

**Ez gara indigena bakarrik**

Garabide Elkartean informazio handiagoa izan dezazuen eta batez ere herri indigenen berri izan edota haien harremanetan jartzeko aukera izateko, web orria bisitatzeko gonbitea egin nahi dizuegu.

Elkartetxikia da GARABIDE eta orria ere horren isla da. Baina

**Geltokiko OTAn 1,75?**

Badakit aspalditik dagoela baina lotsagarria iruditzen zait gutxiengo OTAko kuota Geltokin 1,75 euro izatea. Gainera Batxiller Zaldibia kalean ez da horrela. 10 metroko aldean sekulako diferentzia dago, zein da ba aldea? Eta gainera justu sartu beharra dago!! Enkarngun bat egin behar badezu normala al da 1,75 ordaindu behar izatea? Lapurretak galanta da.

**Edurne**

zintzo jaso nahi dugu bertan egiten dugun guztiaren berri.

Zuen guztion ekarpenak ere ongi etorriak izango dira. Euskal Herrian beste herrietako ekimeneen berri izateaz gainera, gure erakunde eta elkarrean berri izan dezaten zubi lana egin nahi duelako Garabidek eta ondorioz, orri honen ere.

Azken berriak bilduko ditugun eta gure proiektuak zein diren, eta zertan diren jakingo dituzue.

Hizkuntzen eta kulturen errekuperazio eta normaltzeko esperimentzen trukea egiteko hainbat gairi buruzko eztabaida foroak ere jarri nahi ditugu martxan. Izango duzue horren berri laster.

Orrian erabat bukatu eta orraztu gabe dago baina ezagutzen hasteko moduan.

Aste gutxiren buruan izango dugu baita ere gaztelaniazko bertsioa.

Ongi etorri guztiok.

[www.garabide.org](http://www.garabide.org)

**Hirukide ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

**K Kirol jarduerak****Bihar, larunbata****Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30etik aurrera, infantilen partidak izango dira ikusgai: Nesketan, TAKE A-Cortazar BKE; mutiletan, berriz, TAKE B-Antigua Lube-ri.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, kadeteen mailan, mutiletan: TAKE B-BKE; nesketan, berriz, TAKE-Eskoriatza neurketa izango da ikusgai.

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etatik aurrera, seniorren mailan Bide Bide Ibiza-Urdaneta.

**Mahai tenisa**

■ Usabalgo gym gelan, 16:30etik aurrera, mahai teniseko partidak izango dira.

**Futbola**

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30etik aurrera, kadeteen Lehen Mailan, Tolosa CF-Behobia.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30etik aurrera, lurraldekoen lehen mailan, Tolosa CF-Antzuola.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30etik aurrera, Amaro-Intxurre.

**Etzi, igandea****Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30etan, kadeteen Tolosa-Ereintza.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, seniorren mailan, Tolosa-Ereintza.

**Zuzenketak.**

Pasa den azteazkeneko, martxoaren 25eko, alean Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAk egunero 12.000 irakurle dituela argitaratu zen, baina datu erreala 17.000 irakurleena da, pasa den urteko CIESek urtero argitaratzen dituen datuek hala ziurtatu zuten.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA  
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719  
[WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM](http://WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM)

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Martxaundi hemen da, eskualdeko musikari berriak ezagutzera emateko

**Kultura** » Galtzaundiren ekimen honetan talde hasiberrien abestiak bilduko dira disko batean; izen-ematea zabalik dago.

## ESTI EZEIZA

Euskara eta musika uztartzen dituen Martxaundi proiektua aurkeztu zuten atzo Jon Ander Ubeda eta Juantxo Zeberio musikariek. Galtzaundi Euskara Taldeak sus-tatutako ekimen hau 90.eko hamarkadan abiatu zen, eta aurten-goia bosgarren aldia izango da.

Euskal musikagintzari eta eskualdeko musikari hasiberriei laguntzeko asmoa sortu zen egitas-moa duela 20 urte inguru eta atse-denik gabe, aurrera jarraitu du. Martxaundik, lau urtetik behin ikusten du argia. Hala, eskualdeko



Atzo aurkeztu zuten Martxaundi, Jon Ander Ubeda eta Juantxo Zeberio. E. E.

musika talde berrien abestiak bil-tzen dituzte CD batean, ondoren argitaratzeko. Bestalde, diskoa argitaratu ostean, hainbat kontzer-tuz osatutako zirkuito batean parte hartzen dute musikari hauek.

Juantxo Zeberio behin baino gehiagotan hartu du parte proiektuan, eta atzoko agerraldian, hitz onak besterik ez zituen izan egitas-moarekiko. Honenbestez, eskualdeko musikazale hasiberri guztiei dei egin zien proiektuan parte hartzeko. Bere hitzetan, «musika munduan hanka bat sartzeko aukera ematen du Martxaundik». Horren adibide aipatu zuen, proiektu horretan parte hartutako askok oraindik ere musikarekin harremana izaten jarraitzen dute.

## Parte hartzeko zer egin

Matxaundi eskualdeko musika talde hasiberriei zuzendutako

proiektua da. Hori dela eta, bertan parte hartu nahi dutenek, ezin dute aurretik, diskoetxeren batekin kontraturik izan. Edozein estilo eta motatako musika egin dezakete parte-hartzaileek.

Interesa dutenek, apirilaren 20a baino lehen jarri behar dute harremanetan Galtzaundi Euskara Taldekoekin. Hau, *kultura@galtzaundi.com* webgunearen bitartez, telefonoz deituta edo egoitzara joanda egin dezakete. Epe hori igarotakoan proposamen guztiak bilduko dituzte euskara taldekoek. Orain arte, aurkeztu diren onak besterik ez zituen izan egitas-moarekiko. Honenbestez, eskualdeko musikazale hasiberri guztiei dei egin zien proiektuan parte hartzeko. Bere hitzetan, «musika munduan hanka bat sartzeko aukera ematen du Martxaundik». Horren adibide aipatu zuen, proiektu horretan parte hartutako askok oraindik ere musikarekin harremana izaten jarraitzen dute.

Eskaerak jaso ostean, ekaina aldera grabatuko dute diskoa eta udazken aldera argitaratuko dela aurreikuspenak gainditzen bada, eta aurreikuspenak gainditzen bada, neurriren bat hartu beharko dutela ohartarazi zuen. Eskaerak jaso ostean, ekaina aldera grabatuko dute diskoa eta udazken aldera argitaratuko dela aurreikuspenak gainditzen bada, eta aurreikuspenak gainditzen bada, neurriren bat hartu beharko dutela ohartarazi zuen.

# TAKeko neskek lehen postuan jarraitzen dute oraindik, batelen ligan



Jubenil mutilek garaipena lortu zuten Getarian jokatutako estropadetan. HITZA

**Batelak** » Joan den asteburuan Getarian jokatutako 7 eta 8. jardunaldiak; jubenil mutilak garaile izan ziren.

## ERREDAKZIOA

Batelen ligan emaitza onak lortuz jarraitzen dute Tolosaldeko Arraun Klubekoek. Joan den asteburuan, Getarian jokatutako txapelketako zazpi eta zortzigarren jardunaldiak. Haizea eta itsasoa izan ziren protagonista larunbatean. Eskualdekoek lortutako emaitzei dagokionean, ez zuten lortu nabarmenzerik.

Emaitza onenak hauek izan ziren, jubeniletan, bigarren geratu ziren TAKekoak, eta infantiletan, hirugarren. Igandean, itsasoak hobera egin zuen eta bigarain lortu

zizuten eskualdekoek. Bigarren postu bat ere erdietsi zuten, eta hirugarren bat.

Mutiletan, jubenilen mailan, lehendabiziko postua Iñigo Irazu, Endika Lopez, Joseba Lasa eta Joseba Alustizarentzat izan zen. Patroi lanak Ugaitz Mendizabalek burutu zituen. Sei segundo atera zizkieten Getariakoei eta 16 Zarrakoei. Hainbat jardunalditan saiatu ostean, larunbatean Getarian lortu zuten garaipena neskek. Hala, ligaxkan lehen postuan jarraitzen dute.

Infantil-kadeteetan, lehen postua Trintxerpekoentzat izan zen. Bigarrena Kotelikokoentzat, eta hirugarrena, TAKekoentzat.

Batelen liga azken txanpan da, eta asteburu honetan, Zumaia eta Pasai Donibanen jokatuko dira estropadak. Azken saioak apirilaren 3 eta 4an izango dira, San Pedron.

# Aurrera-Saiatz berriz saiatuko da BERRIA Txapelketa irabazten

**Pilota** » 2004koaren ostean, bigarren jokatu dute finala eskualdekoek; oraingoan Irurtzungoak izango dituzte aurkari.

## ERREDAKZIOA

VI. BERRIA Pilota Txapelketako finala jokatuko dute bihar Hernaniko pilotalekuan. Bertan izango dira Aurrera-Saiatzko mutilak saria eskuratu nahian. Aurkari, Irurtzungo pilotariak izango dituzte. Lehendabiziko partida 16:30ean hasiko da.

Aurrera-Saiatzek joan den ostegunean, martxoaren 19an lortu zuen finalerako txartela Burlatako Zugarralde pilota eskolekoei irabazi ostean. 54-48 emaitzarekin hartu zuen mendean. Kadete, jubenil eta nagusien mailan lehia-tzen dira pilotariak. Hala, hiru partidetako emaitzak gehituta, puntu gehien lortzen dituen taldea izango da garailea.

Joan den astean, Beotibarren jokatutako finalerdietan, kadeteetan eta nagusietan Aurrera-Saiatzek irabazi zuen, 22-12 eta 22-14, jubeniletan, berriz, Zugarraldek (10-22).

Aurrera-Saiatz ordezkatuz, kadeteen mailan Labaka eta Arratibel ariko dira. Aurkari, Irurtzungo Idoate II.a eta Beraza izango dituzte. Jubeniletan, Apezetxea eta Zinkunegi eskualdekoek, Ansotegi eta Zabaletaren aurka aritu beharko dute. Azkenik, nagusietan,



Beotibarren, 54-48ko emaitzarekin garaile izan ziren Aurrera-Saiatzkoak. E. E.

Renobales eta E. Galarraga Aurrera-Saiatzkoak, Olo eta Etxeberriaren kontra lehiatuko dira.

Atzera begira jarriz gero, bi finalen izango diren bi pilota eskolek aurretik ere jokatua dute BERRIA Txapelketako finalen bat. 2004an,

BERRIAko lehenengo Txapelketa txapelketa izan ziren Tolosaldekoak, Zazpi-Itturri garaile izan zen orduan, hain juxtu. 2007an, berriz nafarrek eraman zuten BERRIA Txapelketako garaikurra.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Amarotz Auzo Elkartearen eskutik, Araxesko IX. Itzulia apirilaren 5ean

**Mendia** » Doan eman daiteke izena; 9 ordu izango da gutxieneko denbora, eta gehienekoa, berriz, 11 ordu.

## ERREDAKZIOA

Amarozko Auzo Elkartek antolatu, datorren igandean, apirilaren 5ean izango da Araxesko IX. Itzulia. Bi urtetik behin egiten den proba 9-11 ordukoa izaten da, eta egin beharreko bidea honakoa da: Amarotz auzoa-Ollaun menditxo-Artsabio-Añi-Zarate-Azkarate-Atallu-Santa Barbara-Gorriti-Musaio-Merku-Ulizar-Uli-Gaztelu-Leaburu-Amaroz auzoa.

Irteera 07:00etan izango da Amarozko eskoletatik, eta bertara itzultzeko gutxieneko denbora 9 ordukoa izango da, eta 11 gehienekoa. Bidean zehar zortzi kontrol igaro beharko dira, eta horietara jarritako ordutegiaren barruan iristen badira diploma bat jasoko dute oroigarri moduan. Proba bakana nahiz taldeka egin ahal dela azaldu dute antolatzaileek. Oinarriko jakiak eta edariak banatuko dituzte, eta bidean, gutzien segurtasuna bermatze aldera, Gurutze Gorriaren laguntza ere izango da.



Duela bi urte egin zuten itzuliaren une bat. HITZA

## Izen-ematea doan

Bertan izena emateko ez da ordaindu beharrik izango, eta mahitua da 656 00 89 57 (Jose Mari) telefono zenbakira deitzea edota [auzoetxe@hotmail.es](mailto:auzoetxe@hotmail.es) helbidera idaztea. Ibilaldiaren egunean bertan izena emateko aukera ere egongo da. Hain zuzen ere, 06:00etatik 06:45era bitarte utziko dute horretarako aukera. Horretaz gain, itzuliari buruzko informazio gehiago eskuratzeko mo-

## » HAINBAT DATU

- **Eguna eta ordua.** Apirilak 5, 07:00etan.
- **Izen-ematea.** Doan. 656 00 89 57 (Jose Mari) zenbakian, [auzoetxe@hotmail.es](mailto:auzoetxe@hotmail.es) helbidean edota egunean bertan, 06:00etatik 06:45era.
- **Iraupena.** Gutxieneko denbora 9 ordu eta gehienekoa 11 ordu.
- **Bidean.** Jakiak eta edatekoa banatuko dute.

dua ere zabaldu dute antolatzaileek Internet bidez, [www.amarozauzoa.com](http://www.amarozauzoa.com), webgunean, hain zuzen.

## Lehiarik gabea

1989. urtean hasi zen Amarozko Auzo Elkartea Araxesko Itzulia antolatzen, hain zuzen ere, elkarrean sorreraren 15. urteurrenean. Lehenengo itzuliak parte-hartze oso handia izan zuela nabarmen zuten elkarteko kideek, baina, «ondorengo itzuliatarako ibilbidea aldatu egin genuen, lehenengo gogorregia izan baitzen». Itzulia antolatzeko data izan da elkartearen arazoetako bat, izan ere, «mendi elkartea ez izanik, gure itzulia ez da Gipuzkoako mendi ibilaldien baitan sartzen, beraz, hutsik geratzen den asteburuetan kokatuz joan gara urte urte». Hala, urte batzuetan besteetan baino arrakasta handiagoa izan du, «beraz, aztertu beharko dugu horren zergatia».

«Parte-hartzaileen arteko lehia baino, kirola egin, naturaz gozatu eta gure ingurunea ezagutzeko itzulia» dela Araxesko gogorazten dute, eta eskualdeko nahiz eskualdez kanpoko herritar oro animatzen dute bertan parte hartzerari.

## Laburrak

### Abiba Diskofesta bihar gauean, Beotibarren

**AISA** » Udaleko Gazteria sailaren eskutik Abiba Diskofestaz gozatzeko aukera izango dute bihar herriko gazteek. Ohiko moduan, 10:00etan hasiko da festa Beotibar pilotalekuan, eta 05:00ak arte luzatuko da. 4 euro ordaindu beharko dira bertan sartzeko, eta hauek bihar eskuratuko ahalko dira Beotibarreko leihatilan.

### Garizumako hitzaldiak astelehenean ostiralera

**ERLIJIOA** » Datorren astelehenean ostiralera bitarte Garizumako hitzaldiak izango dira Santa Maria parrokian. 19:30ean euskaraz izango da, gaztelaniaz San Frantzisko elizan 19:00etan, elebizi Ibarro San Bartolome parrokian 19:30ean, eta lurreko Andre Maria elizan (Amarotzen) 19:00etan.

### Tolosa Kantari eta 'Bertso Jazza' bihar, Euskaraenean

**EUSKARA** » Euskaraenean baitan, bi ekitaldi izango dira bihar. Bateatik, 12:00etan hasita, Tolosa Kantari izango da Tontokaletik abiatuta. Besteatik, gauean, 22:00etatik aurrera, Bertso Jazza izango da Leidor aretoan. Jazza eta bertsoa uztartzen dituen ikuskizun berritzailea da, eta Tolosako Gipuzkoako estreinako saioa izango da.

## Oteizaren lana gertutik ezagutzeko aukera

**Kultura** » Gaur eta bihar hainbat ekitaldi izango dira artistaren inguruan: erakusketa, kaleko artea...

## ERREDAKZIOA

*Oteiza Tolosan* izenpean ekitaldi ugari antolatu dituzte hilabete honetarako, eta asteburu honetan hainbatetaz gozatzeko aukera izango da.

Hain zuzen ere, gaur eta bihar izango dira ekitaldiok. Gaurkoan, Iskandar Rementeriarren *Oteiza eta Alhondiga kultur gunea* dokumentala eskainiko dute Leidor aretoan (19:30ean, doan). Nafarroako Unibertsitate Publikoko, Jorge Oteiza Katedran egileak bi urtez burutu zuen ikerketaren emaitza da. Orokorrean ikusita, Jorge Oteiza, eta Fco. Javier Saenz de Oiza eta Juan Daniel Fullaondok arkitektoek, 1988 an, osatutako Kultur Zentroaren dimentsio ezberdinean oinarritzen da ikerketa, bereziki, Jorge Oteizaren hiriarekiko pentsamendu estetikoan.

## Erakusketaren bisita gidatua

Bestalde, bihar 12:00etan, Aranburun ikus daitekeen *Oteiza, bizirik proiektua* erakusketaren bisita gidatua izango da Iñaki Epelderekin. Bere eskulturaren bilakaera berrikusteaz gain, arkitekturaren eraman zuen espiritu esperimentatzailea, bibliografia, poesia produktzioa edota gizarte eta kultur suspertzaile gisa artistak bete zuen eginkizuna ikus daiteke. Oteiza Tolosan atal berezia, eta ikus-entzunezkoak ere ikus daitezke.

**Oteizaren lana mihise moduan** Bihar ere, Triangulon, 11:00etatik 18:00etara, GKO Galeriak antolatuta apirilaren 11ra arte ikusgai izango den *performancea* egongo dute. Hainbat euskal artista gaztek Oteizaren Trianguloko lana mihise modura erabiliko dute eta egunean zehar artistaren bizitzan eta lanean oinarritutako lanak burutuko dituzte plazan, pixkanaka Oteizaren eskultura lan berriekin estali eta gutzit eraldatuz. Maisuari omenaldia eskaintzeaz gain, *Street Art* delakoa aldarrikatu eta ezagutarazi nahi dute.

# Kilometroak 09



Jose Ramon Soroz



Ainhoa Aierbe



Kontxu Odriozola



Aitziber Garmendia



Egoitz Lasa



Mikel Pagadizabal (Pagadi)

**Zurriola Antzerki Eskolako ikasleak**

## Umoreizketak

Eguna: Martxoak 28  
Ordua: 18:00 eta 20:00etan  
Non: Donostiako Antzoki Zaharrean

Eta gero, denok Korrikara [korrikara.euz](http://korrikara.euz)



**HIREKIN MUNDURA**  
donostia zurriola ikastola

Sarrerak salgai: Servikutxa, Kuxanet, Teikutxa eta Antzoki Zaharreko txarteldegian 15 eta 10€tan







## Laburrak

### Gaur, pilotalekuaren inaugurazioa izango da

**IRURA** ● Gaur gauean pilotalekuaren inaugurazioa egingo dute. 22:00etatik aurrera punta-puntako pilotariak ikusi ahalko dira: Titin III.a-Laskurain eta Gonzalez-Barriola bikoteen arteko partidarekin. Sarrerak salgai 20 eurotan daude salgai, Zahar Etxean, Opil kafetegian, trinketean eta estankotan.

### Patxi Urizar Durangoko duatloian ariko da bihar

**VILLABONA** ● Patxi Urizar billabonatarra bihar Durangoko III. Duatloia-Zarate eta Elexpe Sariaan ariko da 15.30etik aurrera. Proba distantzia motzekoa izango da eta Bizkaian jokatu den duatloi bakarra da distantzia honi dagokionez. Proba Mugarra Triatloi Taldeak eta Euskadioko Triatloi Federazioak antolatuta dago. Denboraldiari dagokionez seigarren proba izango da. Orain arte lehenengo postuan dago Urizar, 1712 punturekin.

### Etzi, Aizkardi mendi elkartearen 41. ibilaldia

**VILLABONA** ● Aizkardi mendi elkarteak 41. ibilaldia antolatu du igande honetarako, Andatza, Adarra eta Leitzarain inguruan. Ibilbide luzea (46 km, 10 ordu, 6:30ean abiatuta) eta motza (22 km, 5 ordu, 8:00etan abiatuta). Oraindik ere izena eman daiteke eta egunetan bertan ere eman daiteke. Informazio gehiago nahi duenak 649 717 182 telefono zenbakira dei dezake edo [ibilaldia@aizkardi.com](mailto:ibilaldia@aizkardi.com) helbidean.

### Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko azterketa

**TOLOSA** ● Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreak aurki izango dira Tolosan. Interesatuak izena eman dezakete Tolosako HHIn bertan. Azterketa maiatzaren 20an, asteazkenarekin, izango da, EPA bertan.

### Argazki kamera zaharrak ikusgai Herriko Ostatuan

**HERNIALDE** ● Herriko Ostatuan ikusgai dagoen argazki kameraren erakusketaren azken egunak dira. Izan ere, apirilaren 6an aldatuko dute. Bertan, era askotariko makinak zaharrak ikus daitezke.

### La Jarak antolatuta, festa egingo dute etzi

**TOLOSA** ● La Jara Extremadurako elkarteak antolatuta, La Serena bailaran jaiotakoek eta bere ondorengoek festa eta bazkaria izango dute etzi, igandea, La Jara Extremadurako Etxean. Interesatuak 943 675419 ed 675 707619 telefono zenbakietan eman dezakete izena, 20 euroren truke.

# Alegiako gizonezko bat hil da Errezilen, auto istripu batean

**Alegia** ● Urraki mendatean, GI-3740 errepidean, gertatu zen ezbeharra, atzo goizean, maldan behera erorita.

#### ERREDAKZIOA

Gizonezko alegiak bat hil zen atzo goizean, auto istripu batean. Ezbeharra GI-3740 errepidean gertatu

zen, Errezilen, Urraki mendatearen parean. Ertzaintzak egindako lehen ikerketen arabera, biktimaren autoa (Opel Vectra bat) errepidetik irten zen eta, malda batetik behera erori ostean, zuhaitz baten kontra jo zuen. Jarraian, ibilgailua su hartu zuen.

Istripuaren ondorioz, 33 urteko gidaria hil egin zen, pairaturako lezioak direla eta. Gidaria bakarrik zihoina une horretan autoan. Da-

gozkion eginbide judizialak burutu ostean, gorpua Donostiako Auzitegi Patologiako Zerbitzu eraman zuten atzo bertan, autopsia egiteko.

#### Ikerketa martxan

Barne Sailak jakitera eman zuzenez, Ertzaintzak dagokion ikerketa abiarazi du, istripua zerk eragin duen eta hildakoa nor den argitze-ko.

# BertsolarHITZA desafioan, Alegia eta Altzo aurrez aurre

#### ERREDAKZIOA

Bertsozale elkarteak eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak antoturiko BertsolarHITZA desafioaren hirugarren jardunaldia izango da gaur.

Hala, Alegiako eta Altzoko bertso eskolak ariko dira aurrez aurre 21:00etatik aurrera Alegiako Gaztetxean.

Zure mugikorrak zure berri ematen du

**euskaltel**  
zuretzat

Etorri Euskaltelera, eta eskuratu Samsung J700 arrosa hau 0€-ren truke

Gainera, hitz egin zeuk aukeratutako Euskaltel mugikorrarekin minutuko 0 zentimoan 2010 arte

zuntzOptikoa

Zure Euskaltelen saltoki batera, edo deitu 2777 telefono zenbakia

Beharrezko izan ezarritako Euskaltelen zerbitzuak 2009/01/01 baino lehen eta aurrerantzat 2010/12/31 arte. Murrizketak izan daitezke. Euskaltelen zerbitzuak 2010/01/01 baino lehen eta aurrerantzat 2010/12/31 arte. Euskaltelen zerbitzuak 2010/01/01 baino lehen eta aurrerantzat 2010/12/31 arte. Euskaltelen zerbitzuak 2010/01/01 baino lehen eta aurrerantzat 2010/12/31 arte.



Kutxako Carlos Ruiz Gonzalez, Maria Jesus Aranburu diputatua eta Bertsozale elkarteko Iñaki Murua eskua ematen. I.G.

## Xenpelar zentroaren digitalizazio programaren garapena hitzartu dute

**Villabona** » Aldundiak eta Kutxak ia 300.000 euroko diru laguntza eman diote Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari.

IMANOL GARCIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak hitzarmena sinatu dute Xenpelar dokumentazio zentroaren digitalizazioa garatzeko. Villabonako Subijana etxean dago Euskal Herriko Bertsozale Elkarte eta bere parte den Xenpelar zentroa. 292.600 euroko diru la-

guntza jaso du dokumentazio zentroak, 166.000 euro Aldunditik eta 126.600 Kutxatik.

Hitzarmena atzo sinatu zuten Maria Jesus Aranburu Kultura diputatua, Carlos Ruiz Gonzalez Kutxako Gizarte Alorreko zuzendariak eta Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko lehendakariak. Aranburuk azaldu zuenez, hiru erakundeen arteko «elkarlanari beste bultzada berezi bat eman diogu». Xenpelar dokumentazio zentroaren digitalizazioa transmititzeko eta bere «etekina atera ahal izateko», informazioa tratatu egin behar dela gaineratu zuen. «XXI. mendean hasiera honetan digi-

talizazioa da egin behar den lan garrrantzitsuena», zehaztu zuen. Lana hasita dagoela eta orain hitzarmenarekin «bultzada berezia» emango zaiola zioen.

Ruiz Gonzalezek, bere aldetik, digitalizazioaren garapen horrek bi helburu dituela esan zuen: «Informazioa erabilgarriagoa izatea bilaketak egiteko eta munduan zehar edonoren esku izatea ondare bikain hau». Muruak Aldundiaren eta Kutxaren laguntza eskatu zuen eta gogoratu zuen Xenpelarren dauden bost langileez gain, hainbat herritarrek ere biltze lana egiten dutela eta hori ere eskertze-koa dela.

## Laburrak

### Samaniegok literatur astea ospatuko du astelehenean

**TOLOSA** » Astelehenean, hilak 30, literatur asteari hasiera emango diote Samaniego ikastetxean. Hasiera ekitaldia 09:00etan izango da ikastetxeko liburutegian. Bertan izango dira ikastetxeko arduradunak gain Bixente Gorostidi bertsoaria eta Susana Larre, haur liburutegiko arduraduna.

### 'La duda' eta 'Beverly Hills Chihuahua' Gurea aretoan

**VILLABONA** » Helduentzako eta haurrentzako zinema izango da asteburuan Gurea aretoan. Helduentzako *La duda* filma egongo da, gaur 22.30ean, bihar 22.30ean, etzi 19.30ean eta astelehenean 21.30ean. Haurrentzako *Beverly Hills Chihuahua* emango dute etzi, igandea, 17:00etan.

## Poltsikoko Antzerki Lehiaketan izena emateko azken eguna da gaur

ERREDAKZIOA

Asvinenea Arte Eszenikoen Laborategiak antolatzen duen III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketan izena emateko epea gaur bukatzen da. Emanaldiak Adunako Industrialdean dagoen Asvinenea zentroan bertan izango dira.

Lehenengo kanporaketa apirilaren 17an izango da. Informazio gehiago eta izena emateko [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) helbidera jo daiteke. Hiru sari izango dira: obra onenari (1.000 euro jasoko ditu); ikusle goak emandako saria (500 euro) eta promozio kulturalaren saria jasotzen dutenak kafe antzokietan taularatuko dira.

## Arantzazuko Martxarako izena emateko epea apirilaren 2an bukatzen da

ERREDAKZIOA

Arantzazuko Martxa apirilaren 4ean egingo da, *Familia gara. Familian gara* goiburuarekin, eta autobusak antolatu dira Tolosaldean bertara joateko. Interesatuak bere parrokiaren izango dituzte autobus txartelak salgai. Joan-etorriak 13 euro balio ditu eta izena emateko epea apirilaren 2an amaitzen da.

Tolosaldeko herrietatik 07:30ak eta 08:00ak bitartean aterako dira autobusak Oñati aldera. Martxa 09:30ean aterako da Sorraluze hotelaren paretetik eta 12:00etan Arantzazura iristea espero da. Bertan ekitaldia egingo dute. Itzulera 12:20ean hasiko da.

## Bi aukera euskarazko film laburrak ikusteko

ERREDAKZIOA

Euskarazko Film Laburren 2009. zirkuitua lekutara iritsiko da gaur eskualdean. Amezketan, 19:30ean eta gela polibaletean, Korrika Kulturala egitasmoaren baitan ikusi ahaliko dira. Zizurkilen, 20:30ean eta Atxulondo kultur etxean, Manuel Larramendi Bazkunak bultzatuta.

Aurtengoa seigarren zirkuitoa da, eta bertan azken urtean euskaraz sorturiko 8 film labur ikusi ahal izango dira ordubete iraungo duen emanaldian. Euskarazko ikus-entzunekoen alorrean sortzaile gazte berriak sormen handiz datozela egiaztatuta ahal izan da orain arte.

Seigarren zirkuito horretan ondorengoak ikusi ahaliko dira bai Zizurkilen eta bai Amezketan ere: *Kabia* Eider Rodriguez, Nagore Arozena eta beste batzuen; *Lo bakarrik* Iban del Camporena; *Musika*, Asier Urbietarena; *Berde*, Jose Luis Barredo eta Iñigo Garciaarena; *Egiatik gezurrezko bizitzara*, Ander Odriozola, Iñaki Andonegi eta German Rubioren; *Poema baten irakurketa* Euskal Herrian, Xabier Iñarrairegi eta Karlos Erizena; *P.D. Ondo ibili*, Puntutap Arte Produktzioak taldearena; eta, azkenik, *Bankuaren lapurreta* Iñigo Aranbarri eta beste hainbat lagunek egindakoa.



Adunako Korrikaren batzordea osatzen duten kideak. HITZA

## Adunan batzordea osatua eta Irurako Ikastolan aurkezpena

ERREDAKZIOA

Aurtengo Korrikaren inguruan hainbat ekimen eta ekitaldi burutzen ari dira. Adunan batzordea osatu dute eta Irurako Ikastolan euskararen aldeko lasterketarekin bat eginez egingo dituzten ekitaldiak aurkeztu zizkieten ikasleak.

Adunan, hainbat herritarrez aparte, batzordean parte hartu eta kilometroak erosi dituzten elkarrekin ondorengoak dira: Txulobielkatea, Basopeta guraso elkarte, Adunako eskola, Adunako Udala, Adunako Ezker Abertzalea, Muxkil kultur elkarte.

Bestalde, Irurako Ikastolaren aurkezpenean, ikasle zaharrenek aurtengo Korrikaren mezua zein den azaldu zuten, baita bideoak ikusi ere. Giro ederren guztiek batera Korrika herriz herri dabilen bitartean ikastolan aurrera eramango dituzten ekintzak ere azaldu zituzten. Besteak beste, gela guztietan mapak jarri dituzte eguneroko ibilbidea adierazteko, pe-toa ere prest edukiko dute apirilaren 2rako, egun horretan Iruratik pasako baita Korrika. Aurkezpenari amaiera emateko guztiek Korrikako abestia abestu zuten.



Irurako Ikastolan egindako aurkezpenaren une bat. HITZA

## Hurrengo urtean aukera berria

### Bertsolari Txapelketa »

Aurten Xabier Silveira izan da irabazle; Leitzako bi bertsolarien lana ere aipagarria izan zen.

#### A. IMAZ

Amaitu da 2009ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Finala iragan larunbatean ospatu zen Elizondoko Lur Aretoan. Bertan, Xabier Silveira handiak 6. txapela irabazi zuen; Julio Sotok etorkizuna baino orainaldia dela erakutsi zuen; Nafarroako harrobiak Itturri bezalako «artista» bat aurkeztu zuen... Leitzarrak ez ziren finalera iritsi. Hurrengo urtean aukera berri bat edukiko dute ordea. Berts eskola abian den honetan, zeresana ematen jarraitzeko badira beraz bideak eta aukerak.

### Diego Riaño eta 'Luze'

Migel Mari Elosegri, 'Luze', 12. postuan gelditu da aurtengo txapelke-



Diego Riaño final-laurdenetan, Tafallako saioan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

tan. Finala gertu eduki baldin bazuen ere, Lur Aretoan ikusle moduan egotea tokatu zitzaion.

Beteluko azken-laurdenetan lan ona egin zuen *Luze*, bigarren postua lortu zuelarik. Altsasuko finalaurrekoan hirugarren gelditu zen. Azkenean, finalerako txartela 8 puntutara gelditu zitzaion leitzarriari.

Diego Riañoaren ibilbidea aurten laburragoa izan da. Lehen kanporaketa saioan, Tafallan aritu zen Riaño, bosgarren gelditu zen 165,5 punturekin. Kanporaketa hurra Xabier Silveirak irabazizuen. Txapeladunarekin abestu izana behintzat hor geratzen da. Sailkapen orokorrari begira jarri ezker, Diego Riaño 20. postuan aurkitzen da.

## Bertso-pesta Nafarroan



### » Iritzia

Migel Mari Elosegri 'Luze'  
Bertsolaria

**B**ukatu da Nafarroako 2009ko bertsolari-txapelketa. Leitzarrrontzat ez da izugarria izan, ez Diegok eta ez nik ez bait genuen aurrera egiterik izan. Batzuen pena, ordea, besteen poza izaten da eta Itturrik aixe ahaztuko ez duen finalean abestu ahal izan zuen Elizondon.

Hogeitabost bertsolarik hartu genuen parte, eta Bittor, nerone, eta beste fosilen bat hor egonda ere, batzabesteke adina 25 urte inguruko izan omen zen. Aipatzeko da Bittor Elizagoienek 1979.tik ez duela hutsik egin txapelketan eta aurten ere txukun aritu zela. Bestalde, gazte mordoxka dator

eta indartsu gainera. Pentsatzekoa da urte gutxitan hauek nagusituko direla eta hori seinale ona izan da oso.

Nafarroan pixkanaka, bertsolaritza eremu berrietara zabalduz doala dirudi. Aurten Tafallan edo Auritzen jokatutako saioetan entzule mordo inguratu zen. Aipatzeko da jende askok jarraitu duela txapelketa, tartean gazte askok, eta horrek etorkizunerako baikortasuna sortzen duela.

Gai-jartzaile taldeak lan ona egin du, eta gai gehienak kantatzeko modukoak izan dira. Aurkezleek ere ongi aski bete dute haien zeregina. Epaileei dagokienez, lan zaila dutela esan behar da, baina batzutan zaila egiten dela haien erabakiak ulertzea. Antolaketa berriz, ona. Zenbait lagun hilabetean zehar aritzen dira buru-belarri lanean eta hori nabaritzen da.

Bertsolariei buruz, berriz, azken urteotan mailak gora egin duela esango nuke. Batzuen eta besteen arteko aldea txikituz doa, eta Nafarroan entzuleak gustora uzteko moduko neska-mutil koadrila da-

goela uste dut. Etabukatzeko, finalari buruzko aipamena. Finalak pesta izan behar du eta halakoxea suertatu zen aurtengoa. Julio eta Silveira buruz-burukora iritsi zirenean jendea sutan jarri zen eta aspaldi ez bezalako giroa bizitu zen.

Xabier Silveirak oso estilo propioa du, nortasun handia, eta malkiña bat zale dituen arren, batere gustoko ez dutenak ere badira. Baina bertsotan egiten du, ederki gainera, eta nik uste dut finala merezita irabazi zuela. Julio Sotok txapelketa bikaina egin du, eta final borobila egin gabe, Silveira ederki xutuzeko gai ikusi genuen. Gaztea da baina bertsolari dotore askoa. Okerrik ez bada, laister ikusiko dugu Nafarroako txapela jantzita, eta ez dadila inor harritu Euskal Herriko txapelketan ere aurrera egiten badu.

Laburtuz, txapelketa polita izan da aurtengoa eta festa bizi-bizian bukatu zen. Eta besterik gabe, bertso-pesta hau posible egiten duten guztiak eskerrak emanez, ongi bizi eta laister arte.

## Leitzako eta Aresoko udalak euskarazko telebista kateen alde

**Politika** » Nafarroako Gobernari euskarazko edukia dituzten kateak laguntzea eta sustatzea eskatu diote.

#### ASIER IMAZ

Aresoko eta Leitzako udalek, Nafarroako beste hainbat udalek bezala, euskara ardatz duen Lurreko Telebista Digitalaren inguruko mozioa edo adierazpena onartu dute. Bertan, Nafarroako Gobernuari bi eskaera egiten dizkiote.

Dirudienaz, mozio edo adierazpen «asko» jasotzen ari da Gobernuak. Erantzun ofizialik ez baldin badago ere, administratziotik jakinarazi dutenez «gaia eztabaidatzen» ari dira.

### Gobernuari bi eskaera

Aresoko eta Leitzako udalek bi erabaki onartu zituzten azken bilkuretan. Erabaki hauek Nafarroako Gobernuari zuzendutako bi eskaera dira.

Lehen: «Parlamentuan onetsitako mozioarekin bat eginez, Nafarroako Gobernuak premiatzea beharrezkoak diren hitzarmenak sinatu ditzan Lurreko Telebista Digitalaren bidez Nafarroan Euskal Autonomia Erkidegoko ETB1 eta ETB3 kateak ikusi ahal izateko».

Bigarrenari dagokionez: «Nafarroan tokian tokiko euskarazko telebistak ikusteko aukera eskaintzea, eta horretarako, Nafarroako

Gobernuak telebista kate horiei beharrezkoak diren lizentzia digitalak ematea».

### Euskarazko telebistarako gabe

Heldu den urteko apirilaren 3an betiko moduan telebista ikusten jarraitzeko, seinalea jasotzen duen sistema aldatu egin behar da. Data horretan Lurreko Telebista Digitala deiturikoa jarriko dute telebista ikusteko aukera bakar bezala.

Udaletan onartutako mozioen arabera, «Lurreko Telebista Digitalak ez du aukerarik ematen euskaraz emititzen duten kate bakarrik Nafarroan ikusteko». Hau da, ETB1 eta ETB3 ez ingulirareke Nafarroan ikusi 2010eko apiriletik aurrera. Bestalde, tokian tokiko telebista kateak ere, Xaloaren kasu, lizentziarik gabe emititu ezinik geldituko litirake.

Leitzak eta Aresok hau gerta ez dadin, Europako Kontseiluak 1992. urtean onartutako Gutxiengoen Hizkuntzen Buruzko Eurokartan jartzen duen pasarte bat azpimarratu dute: «Alboko herrialde batean lurralde edo gutxiengoen hizkuntzan nahiz hauen antzeko beharrezkoak diren hitzarmenak telebista-saioak zuzenean hartzeko askatasuna bermatzeko konpromisoa» hartu behar da.

Mozio hau onartuz, lurraldean euskarazko hedabideak sustatzea eta laguntzea «herri-agintarien zeregina» dela azaldu nahi izan dute Leitzako eta Aresoko udalek.

## Partida garrantzitsuak asteburu honetan

**Leitza** » Aurrerako pilotariak hainbat final eta finalaurreko jokatuko dituzte bihar eta etzi txapelketa desberdinetan.

#### A. IMAZ

Aurrerako pilotariak partida garrantzitsuak jokatuko dituzte bihar eta etzi. Txapelketak azken partidetak iristen ari dira eta urte guztian bezala, hainbat leitzar txapelaren lehian arituko dira.

txara txapelaren bila, bihar 10:00etatik aurrera.

### Irurtzun, Lizarra eta Zizar

Irurtzongo Txapelketan hiru bikote leitzar egongo dira bihar goizean. Lizarrako Txapelketan, bihar 17:30etik aurrera, Iparragire-Barrilak jokatuko dute.

Zizurko Txapelketan finalaurrekoak lehiatuko dituzte leitzarrek etzi goizean. Bertan Anartz Olano, Jon Lezea eta Xabi Jaunarena egongo dira. Azken honek Bizkaia aurka jokatuko du.

### Nafar Jokoen finalak

Xabier Eraso-Mikel Onsaldo bikoteak Burlatan jokatuko du bihar Nafar Jokoen finala. Jaialdia 09:30ean hasiko da eta euren partida laugarrena izanen da.

Atarrabian Beñat Altxelai eta Joanes Illarregi irtingo dira kan-

### Iruritan Txapelketa

Iruritan Emakumeen Paleta Gomako Txapelketa jokatuko dute bihar 16:00etan. Bertan egongo dira Aurrerako bi neskek: Iera Agirre eta Saioa Aristorena hain zuzen ere. Hauek Estixtu eta Mirentxuren aurka jokatuko dute.

## Laburrak

### Udalbatzaren bilkura gaur 21:00etan Batzar Aretoan

**LEITZA** • Udalbatza gaur 21:00etan bilduko da Batzar Aretoan. Eguneko gai-zerrenden artean, bestek beste, ondorengoak daude: udal-tertxeko lanen esleipena eta *Aldaketa garaia, burujabetza garaia* mozioa.

### Herri Batzara egingo du ezker abertzaleak

**LEITZA** • Ezker abertzaleak Herri Batzara egingo du hilaren 31n, asteartean, 20:00etan Aurreran. Bertan etxebizitza inguruko gaiak eztabaidatuko dituzte: alokairua, etxebizitza hutsak, Goiko Landa...

### Kantu Bazkaria eta kalejari bihar Bartolaren eskutik

**IBARRA** • Bartolaren Batzordeak Kantu Bazkaria antolatuko du bihar 14:30ean Bizi Nahi elkartearen 11:00etan kalejari egingo dute plaza-tatik. Sarrerak Zubiaurren, Atarin eta Danon Txokoan aurkitzen dira.





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarrairain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kirolak

■ **Irura.** Pilotalekuaren inaugurazioa gaur Titin III.a-Laskurain eta Gonzalez-Barriola bikoteen arteko partidarekin. Sarrerak salgai 20 eurotan herriko tabernetan eta estankokan.  
■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-teak 41. Ibilaldia antolatu du hilaren 29rako Andatza, Adarra eta Leitzarain inguruan. Ibilbide luzea (46 km, 10 ordu, 6:30ean abiatuta) eta motza (22 km, 5 ordu, 8:00etan abiatuta). Informazioa: 649 717 182, [ibilaldia@aizkardi.com](mailto:ibilaldia@aizkardi.com) helbide elektronikokan.  
■ **Amarotz.** Amaroako Auzo Elkar-teak IX. Araxesko Mendi Itzulia antolatu du apirilaren 5erako, igandearrekin, 09:00etan abiatuta, 9-11 orduko proba izango da eta doakoa. Izen-ematea, 656 00 89 57 (Jose Mari) telefono zenbakira deituta, [auzoetxe@hotmail.es](mailto:auzoetxe@hotmail.es) helbide elektronikora idatzita edo irteeran.

### Deialdiak

■ **Albiztur.** Bihar, Adunako Aburuz sagardotegira irteera autobusez, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afaria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udaletxean bertan.

■ **Leaburu.** 55ko kintoen festa apirilaren 4ean Leaburun meza eta bazkaria bertako Ostatuan eginez. Izen-ematea, 943 671548 telefono zenbakian.  
■ **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreak aurki izango dira Tolosan. Izen-ematea Tolosako HHIn eman beharko da izena, eta azterketa maiatzaren 20an izango da, asteazkenarekin, EPako egoitzan bertan.  
■ **Tolosa.** La Serena bailaran jaiotakoek eta bere ondorengoek festa eta bazkaria izango dute igandean La Jara Extremadurako Etxean. Izen-ematea, 943 675419 edp 675 707619 telefonoetan (20 euro).  
■ **Tolosa.** Iskandar Rementeriarren eskutik *Oteiza y el centro cultural Alhondiga. Proyecto estetico para la ciudad de Bilbao* izeneko proiektzioa Leidor aretoan 19:30etik aurrera. Sarrera doakoa da.  
■ **Tolosa.** Positiva eta Lords of bukkake (BCN) musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.  
■ **Tolosa.** Bertsolar HITZA Desafioa: Alegia vs. Altzo. 21:00etatik aurrera Alegiako Gaztetxean.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkar-teak antolatu irteera hauetarako lekuak gelditzen dira: Asturias (hilaren 23), Galiza (maiatza) eta Platja de Aro (ekaina). Izen-ematea, elkar-tean.  
■ **Anoeta.** Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaia antolatu du apirilaren 16rako, ostegunarekin: kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatu, ondoren bazkaria. Bazkariak eta autobusak, 28 euro bazkideentzat (30 euro ez denarentzat). Izen-ematea, biltokian bertan egindai teke.

### Erakusketak

■ **Hernialde.** Argazki kameraren erakusketak. ikusgai herriko ostatuak apirilaren 6ra arte. Ondoren Urtzi Batisen lanak jarriko dituzte.  
■ **Tolosa.** Oteiza, bizirako proiektua izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian, martxoaren

28ra arte, igande honetara arte, alegia.

### Zinema

■ **Tolosa.** *The reader* filma emango dute asteburuan, Leidor aretoan: gaur 22:30ean, igandean 19:30ean eta 22:00etan eta aste-lehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.  
■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretza, 1. 943 673649.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunikuzinik.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

**berriarekin**

Munduko ZINEMA euskaraz

Best film: *Bratiscava*, *Montain*, *Ekuldeko promesak*, *Cosplayen seme-aitabak*, *Ezizulako plaine*, *Lorezain leiala*

Maitasun istorioak, zientzia fikzioa, akzioa, kulturala zinema

larunbatero, zure kioskoan BERRIarekin

+ 4,90€

Harpidedunentzat: biEsuma 050a 19.40€  
Eskaintza egutia: 943-29-42-45

antolatu berria munduko zinema euskaraz

**Maño de Oz**

**KONTZERTUAN**

**APIRILAK 4 24:00**

→ 25€ AURRERIK → 28€ LEIHATILAN

**SALMENTA PUTUAK:** TICK-TACK-TICKET  
**IRUÑEKO TABERNAK:** ONKI MIN / BLACK ROSE  
**TOLOSA:** ZUNBELTZ  
**LEKUNBERRI:** ILARGI ETA AKER

sala **MUXU**

Antolatuzailea: **yaluna**  
Laguntzailea: **DN** DIARIO DE NAVARRA

www.salamuxu.com Lekunberri